

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Jendaurrean jartzea Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaindu behar dutenen 2023ko errolda

Jakinarazten da, ezen iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo hamabost egun balioduneko epean, 2023ko ekitaldiko zerga errolda hauek ikusgai egongo direla udal bulegoetan:

Hiri, landa eta ezaugarri berezietako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.

Komenigarritzat jotzen diren erreklamazioak edo alegazioak udal bulegoetan aurkeztu ahal izango dira, idatziz eta alkate-lehendakariari zuzenduta.

Oharra: zergadun guztiei gogorarazten zaie ordainagiri guztiak nahi duten banku erakundean helbideratu ditzaketela, bai eta hobaria eskatu ere, irailaren 30a baino lehen.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2023ko ekainaren 2a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ